



OLENTZEROREN ETORRERA

Ongi etorri beroa, opariak jaso aurretik

Gozo hartu zuten umeeek Olentzero, astelehenean. 'Kottonio' astoa, saskia bete opari ekarri zuen ikazkinak, eta gaua iritsi baino lehen banatu zituen oparitxo batzuk, jasotako muxu goxoak eskertzeko.

KOTTONIOREN saskia ederki beteta ekarri zuen Olentzerok, astelehenean. Azken egunetako eguraldi epelak Oindi menditik Hernanirainoko bidea erraztu zien zertxobait, elurrik ez baitzuten topatu, mendizidorretan.

Baina Hernaniko kaxkoan sartu bezala, nahiko komeri izan zituzten aurrera egiteko. Izan ere, kaleak bete-beteta zeuden, Olentzero agurtzeko irrikaz zeuden haurrekin.

Harrera beroa

Goxo-goxo hartu zuten umeeek Olentzero. Herrian barrena buelta egiten lagundu zioten, eta azkenik, Plazan, berarekin elkartzeko aprobetxatu zuten denek. Muxu goxoak emanda, gaueko lehenengo opariak lortu zituzten. ||



Emozioz betetako

eguna. Olentzero etorri baino lehenago, Hernani girotzera atera ziren astelehenean, herriko ikastetxeetako haurrak eta hainbat taldetako musikariak. Egun osoan zehar ez ziren falta izan Gabon kantak. Bestalde, bestelako opariak lortzeko aukera izan zen truke azokan. Mariskada eder bat irabazteko zortea ere izan zuen baten batek. Azkenik, Olentzeroren etorrerak jarri zion egunari azken ikutua, Ttarla dantza taldearen laguntzarekin. Kaxkoa eta Plaza umez bete ziren, Olentzero goxo-goxo hartzeko, eta azken eskariak egiteko. ||



❖ NATZA

'Barrura begiratzeko leihoak' jarriko dute gaur

Barrura begiratzeko leihoak pelikula botako dute gaur, 19:30etan Biterin. Abenduaren 14an zuten botatzekoa, baina arazoak izan zituzten proiektatzeko, eta atzeratu egin zuten emanaldia. ||

❖ GIBELALDE

Zine proiektzioa, gaur

Gibelalde auzo elkarteko egoitzan (Larramendi 11), haurrentzako zine proiektzioa izango da gaur, 17:00etan. Kojinak eramateko gomen-dioa luzatu dute. ||

◆ ZUMITZA TTT

Txirrindularitza lizentziak, gaur eta bihar

Txirrindularitza lizentziak berri eta berriak egiteko aukera izango da gaur eta bihar, 19:00etatik 20:00etara, Zumitzan. Horretarako, 90 euro ordaindu izanaren justifikantea eraman behar da. Dirua kontu honetan sartu behar da, bakoitzak bere izen-abizenekin: KUTXABANK: 2101 0041 03 0127163806. ||

Triatloi taldeari buruz, bihar

Zumitza taldean triatloia egin nahi duenak, informazioa lortzeko aukera izango du bihar, 19:00etatik 20:00etara Zumitzan. ||

❖ ITURRITXO ELKARTEA
Haurtxokoak, bihar eta etzi

Urtero bezala, Gabonetako Haurtxokoak egingo dira bihar eta etzi Iturritxo elkartearen. Goizeko 10:30etatik 13:00etara bitartean egingo dira ekintzak, eta auzoko haur guztiak gonbidatu nahi dituzte parte hartzera. ||



GLNEA
GURE ETA ZURE TOPAGUNEA



EGUNEKO MENUA 11€

**ASTEAZKENAK
PINTXO - POTE**

ARDOA EDO GARAGARDOAREKIN

**OSTEGUNAK
PINTA EGUNAK**

PINTA KAÑAREN PREZIOAN

Argarain kalea, 2 behea - 20120 Hernani - Tel: 943 33 25 29

**CATALANA
OCCIDENTE**
Aseguruak

Atzileta 30 -
20120 Hernani
Telf - 943-332440
Fax - 943-556602

-Bautista-Biurarena-Etxegoien

gse
Asesoreak

**Aholkularitza eta
tramitazio
zerbitzua**

Kardaberaz 40 behea
Telfnoa: 943 55 02 54
Faxa: 943 33 58 01
www.gseasesores.net

☎ TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 092 ● DYA: 943 464622
● Autobusak: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● Anbulatorioa: 943 006666 - 943 203020 ● Jokalari anonimoak: 943 331103 ● Alkoholiko anonimoak: 943 331103
✚ FARMAZIAK ● Egunez: Castilla Urbietan 7 - 943 552941 ● Gauez: Etxebeste Elcano 9 - 943 552087

EGURALDIA **GAUR** Goiz partean lainotuta egongo da eta zaparrada txikiren bat bota dezake, baina arratsalde-rako eguraldi eguzkitsua espero da. Min.8° / Max.13°.
BIHAR Hego-mendebaldeko haizea ibiliko da, urdinguneak nagusi dira eta tenperaturak gora egingo du. Min.7° / Max.15°.

SASKIBALOIA - TEKLAN LASER



Pattal xamar ibili ziren hernaniarrak erasoan, eta ezin izan zuten arerioa gainditu.

Partidu kaxkarra eta emaitza tristea, urteari agur esateko

TAKE Orbela talde tolosarraren aurka jokatu zuen Teklan Laserrek igandean. Etxean baziren ere, hernaniarrak galdu egin zuten, 55-65.

TEKLAN Laserrek 55-65 galdu zuen igandean TAKE Orbela tolosarren kontra. Partidu kaxkar xamarra jokatu zuten, eta ezin izan zuten arerioa gainditu.

Erasoan motel

Erasoan motz gelditu ziren hernaniarrak, eta atsedenaldira iritsitakoan 18 puntu zituzten kontra.

Bigarren zatian jokua hobetu bazuten ere, tolosarrak beren alde erabili zuten lehenengo zatian lortutako tarte, eta Teklan Laserrek ez zuen lortu markagailuari buelta ematea.

Oporrak, urtarrilera arte

Hernaniarrak oporrak izango dituzte orain, urtarrilaren 13ra arte.

Santo Tomas Lizeoa izango dute orduan aurkari, eta hau ere, ez da partidu erraza izango, sailkapenean hernaniarrak baino 6 postu gorago baitaude donostiarrak.

Orain arte jokatutako partiduetatik 7 galdu eta 5 irabazi ditu Teklan Laserrek. Hurrengo partiduetan jokua hobetu beharko du, sailkapenean gora egiteko. ||

TXOKO FEMINISTA - AUTODEFENTSA TAILERRA

Autoestimua indartzeko tailerra, larunbatean

Autodefentsa tailerra antolatu du Hernaniko Txoko Feministak larunbat goizerako. Izena eman daiteke: 'hernanikotxokofeminista@gmail.com'.

KALEAK berreskuratzen ari gara kanpainaren barruan antolatu du Hernaniko Txoko Feministak larunbateko autodefentsa tailerra. Goizeko 09:45etatik 14:00etara bitartean, «indarkeria sexistaren erroetara jo eta berarekin bukatzeko beharrezkoak diren jokabide, jarrera eta tresna multzoaren» berri emango da, Biteri kultur etxean. «Autodefentsaren bidez autoestimua indartzea» dute helburu.

Tailerra baino gehiago

«Jarrera matxistak identifikatu eta hauei uko egiten trebatzea da autodefentsa egitea. Hori lortzeko, autoestimua indartzea da klabea», diote Txoko Feministako kideek. «Izan ere, nor bere burua maitatzeak eta errespetatzeak laguntzen du, behar denean, jendeari mugak jartzen», gaineratu dute.

Larunbateko tailerraren bidez, hainbat alor landuko dira, taldean: norberaren defendatzeko gaitasuna,

emakumeak antolatzea, taldean eztabaidatzea, babesa ematea, espazio komunak sortzea eta kontzientziatzea.

Izen-ematea, zabalik

Izena emateko, ondorengo helbidera idatzi behar da: hernanikotxokofeminista@gmail.com.

Tailerrak, jarraipena

«Espazio kolektibo indartsu bat eraikitzeke ahaleginean», beste pare bat tailer antolatu-ko dira, urtean zehar. ||

IGERIKETA - HERNANIKO XVI. SARIA



Denbora hobetuta eta dominarekin

Hernaniko XVI. Saria izan zen jokoan larunbatean, kiroldegian. Hernaniarrez gain, beste hainbat taldetako igerilariak ikusteko aukera izan zen, besteak beste, Buruntzaldea, Ordizia, Tolosaldea, Bergara, Fortuna, Atletico San Sebastian eta Zarautz taldeetakoak. Guztira, 180 igerilari aritu ziren lehian, eta hernaniarrek lan polita egin zuten. Gehienek denbora pertsonalak hobetzea lortu zuten, eta mutilek 3garren domina lortu zuten, erreleboetan. ||

ATLETISMOA

Hernaniarrak podiumean nagusi

Larunbatean jokatu zen Donostiako hondartzetan 32garren Cross Beach, hondartzako krosa. Hernaniko atletismo taldeko korrikalariak bikain ibili ziren, eta podiumera igotzea lortu zuten, Yohanes Merinok lehenengo postuan, eta Anartz Artolak 2garrenean. ||

KIROL LUDOTEKA

Kirol jolasak, gaur, bihar eta etzi

Zortzi urtetik gorako umeentzako kirol ludoteka jarri dute, gaur, bihar eta etzi, 10:00etatik 13:00era, eta guztiz debalde. Bizikletarekin ginkanak, herri kirolak, joko herrikoiak... egingo dira, kiroldegian. ||

BERTSOLATA

Elkarteetako bertsolari txapelketa, eta Bertso Musikatua, aste honetan

Bertsolatako egutegiaren barruan, bi emanaldi izango dira aste honetan, Hernanin. Batetik, ostiralean, Elkartetako Bertsolari Txapelketako 2garren edizioa egingo da, bertso-afari baten buel-tan, Sagastialde elkartearen. Sarrerak salgai daude, 18 euroan, Aralar tabernan eta elkartearen bertan. Bederatzi bertsolari entzun eta giro ederrean afaltzeko aukera izango da. Bestalde, larunbatean Bertso Musikatuen lehenengo emanaldia izango da, 19:30etan Biterin. Eñaut Agirrek, Imanol Kamiok eta Aitor Atxegak bertso zahar eta berriak jarriko dituzte, musikak lagunduta. Sarrerak 5 euroan jarriko dira salgai, emanaldia hasi baino lehen. ||

KARABI ELKARTEA

12garren urteurrena ospatuko da, ostiralean

Karabi elkarteak 12 urte bete ditu aurten, eta hori ospatzeko, bazkideekin luntxa antolatu da, ostiral honetarako. Luntxa 20:00etan hasiko da, eta ondoren, Mus Txapelketako garaikurrak banatuko dira. ||

IRAGARKI MERKEAK

Atikoa salgai Kale Nagusian. 176.000 €. Gazteentzat aproposa. 48 m2 erabilgarri. Bizitzera sartzeko. Deitu: 652 740 831. Posta: lursaski@gmail.com

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Irigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)